

## **Eskandinaviako delegazio batek Plazaolako Partzuergo Turistikoa bisitatu zuen atzo**

Goizeko 9.00etan iritsi zen Eskandinaviako delegazioa Plazaolako geltokiko atera eraman zuen autobusa. Ordu horretan, eko-mezularitzan aritzen den *Oraintxe* enpresako langile den Eneko Astigarragak Espainiako zikloturismoari eta garapen ahalmenari buruzko aurkezpena egin zuen.



Beranduago, Partzuergoko kudeatzailea, Maitena Ezkutari, Plazaolako Natur Bidea Proiektuari buruzko hitzaldia eman zuen eta horretan, beste gauza batzuen artean honako puntuak azaldu zituen: Partzuergoaren antolaketa modua, partehartzaileak, Natur Bidearen sorkuntzan eman beharreko pausak, mantenimendu eskumenak, tokiko enpresa eta lurraldeko administrazioarekin dauden harremanak, finantziarioa eta zonaldeko garapena nola dagoen konektatuta (Mendukiloko kobazuloak, etab).

Suezia, Danimarka eta Norvegiako eskualde administratiboetako 29 funtzionario hartu zuten parte bisitan. Bisitariak landa zonaldeetako turismoa eta zikloturismoa garatzeko Europar proiektu batetan parte hartzen dute eta gurera etorri ziren Plazaolako Partzuergo Turistikoaren esperientzia eta natur bidea ezagutzera eta zonaldeko bizikleten zerbitzu publikoaren lehenengo erabiltzaileak bihurtu ziren. Era horretan, zikloturismoa beste herrialde batzuetan nola antolatzen ari den ezagutu zuten lehenengo pertsonan.

Behin proiektu guztia azaldu ondoren eta kudeatzaileak bisitariak instalazioak ikusteko bisita bat egin eta gero, turismo bulegoa, artisauen denda, bisitarien zentroa eta "*Pedalkadak jasangarritasunerantz*" erakusketa ibiltaria, ondo gosalduta eta indarrak berritu zituzten Plazaolako Natur bidea ibiltzeko, Lekunberriko Uitziko tunelera, 10km denera, era horretan tunelaren obrak ere ikusteko aukera izan zuten.



Ondoren Lekunberriko Elostako Jatetxean bazkaldu eta Bikain gaztandegia bisitatzea gerturatu ziren arratsaldean, Idiazabal Jatorrizko Izenndura Etxarri Laurraunen.

Bisitak arrakasta handia izan zuen, landa turismoa eta zikloturismoari buruzko ideia, esperientzia eta inpresioak trukatzeko lagungarri izan baitzen oso.